

8. Funtsezko ekintzak (Jarduera nagusiak)

Uhinak proiektuaren eguneroko jarduera guztiak helburu bakar baten inguruan biltzen dira: teknologia berritzailea erabiliz finantza bidezkoago eta irisgarriago bat sortzea. Horretarako, hainbat ekintza koordinatu behar dira, bai barne mailan, bai bazkide-sarearen bidez.

Ekoizpena eta garapena

Uhinak-en jarduera nagusietako bat da plataformaren garapen teknologikoa eta mantentzea.

Blockchain sarearen kodea garatu eta eguneratzea, transakzio seguru eta azkarrak bermatzeko.

Aplikazio mugikor eta web plataformen diseinua eta funtzionamenduaren hobekuntza etengabea.

Datuen segurtasuna eta pribatutasuna kontrolatzeko sistemak garatzea, GDPR araudiari jarraituz.

Erabiltzailearen esperientzia probatu eta optimizatzea, produktuaren kalitatea eta fidagarritasuna ziurtatzeko.

Hau da know-how estrategikoena: ezin da kanpora utzi, Uhinak-en identitatea eta funtzionamendua bertan oinarritzen direlako.

Arazoak konpontzea eta bezeroaren laguntza

Uhinak-en bigarren jarduera nagusia da erabiltzaileei laguntza eraginkorra eskaintzea.

Arreta digitala 24 orduz, txat automatizatu eta laguntza pertsonalaren bidez.

Arazo teknikoak edo ordainketa akatsak denbora errealean konpontzea.

Bezeroen iritzia jasotzea eta hobetzeko proposamenak txertatzea produktuaren garapenean.

Bezeroaren konfiantza da gure aktiborik baliotsuena; horregatik, arazoak azkar konpontzea eta gardentasunez komunikatzea lehentasuna da.

Plataforma eta sareko jarduerak

Uhinak ez da tresna isolatu bat; sare batean oinarritutako plataforma da, eta bere jarduera asko horri lotuta daude:

Fintech bazkideekin eta GKEekin datu-fluxuak eta ordainketa bideak sinkronizatzea.

Lankidetzaren estrategiko berriak sortzea beste enpresa edo erakundeekin, Uhinak-en eragina zabaltzeko (ODS 17).

Komunitate digitalaren dinamizazioa (Discord, Telegram), erabiltzaileen arteko parte-hartzea eta elkarlana sustatzeko.

“Uhinak Day” eta antzeko ekitaldiak antolatzea, berrikuntza eta finantza inklusioa elkarrekin bultzatzeko.